AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

64

880/2013 EBAZPENA, ekainaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendariarena. Honen bidez Ana M.ª Chueca Ajuria andrea izendatu da B-Dibisio Korporatiboko zuzendariordearen lanpostua betetzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan.

Zuzendaritza Nagusi honen apirilaren 2ko 636/2013 Ebazpenaren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan B-Dibisio Korporatiboko zuzendariordearen lanpostua betetzeko deialdia egin zen. Ebazpen hori, hain zuzen, 2013ko maiatzaren 7ko EHAAn argitaratu zen (86. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak «curriculum vitae»-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, Ana M.ª Chueca Ajuria andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ana M.ª Chueca Ajuria andrea izendatzea B-Dibisio Korporatiboko zuzendariorde Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2013ko ekainaren 7etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 7a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.